

## PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure produktuaren, ZTM, ingelesez eta euskaraz egindako izen-joku batetik dator. Ingelesezko “STEAM” hitzaren erroa du, eta gailuaren funtzionamendua erlazionatuta dago. Izan ere, “Z” euskerazko “EZ” hitzatik dator. Beraz, “EZ STEAM” esan nahi du gure produktuaren izena. Jarraian azalduko dugu hobeto.

**EZ + STEAM = EZ STEAM = ZTEAM = ZTM**

ZTM zerbitzu bat da, ispiluak instalatzen eta berritzen dituena. Gainera, deslurrungarri automatiko bat instalatzen dugu, ispiluko lurrina desagerrarazten duena. Deslurrungarriak luxuzko diseinua du. Haren funtzioa ispiluko lurrina guztiz desagerraraztea da, gure aurpegia ondo ikusi ahal izateko.

Dutxatzean sortzen den lurrina aire beroarekin desagertarazten du, eta honela ispilua argi geratzen da, hain preziatua den denbora aurreztuz. Automatikoa da, hezetasuna detektatzen duenean abiarazten delako, eta produktuaren alderdi guztiak pertsonalizatu daitezke APP baten bidez.

Zerbitzuarekin bat mantenua dator, hilabetero ordaindu beharko dena.

